

EUSKARAZKO IZEN SINTAGMA MUGATZAILERIK GABEKOEZ

Alfonso Irigoien

Uste dut on litzatekeela numeroaren edo numerorik ezaren ezaugarri bereziak zein diren, euskarari dagokiola, finkatzea.

Izan ere gure hizkuntzan sustantiboa, adjetiboa, eta abar, gramatikazko numerorik gabeak dira, hizkuntza indoeuropeoz ari garela ulertzen denari bagogozkio, eta baita genero eta kasu gabeak ere, eta arrazoi horregatik ez da posible komunztadurarik garatzea izan haien eta izen sintagma osatzen duten elementu desberdinen artean.

Hala ere, erakusleak historikoki singularraren eta pluralaren arteko oposizioa dutela agertzen baitira, hauetan oinarri harturik euskal artikulua sortu dira, alboko hizkuntza erromanikoetan paraleloki gertatu den erara, eta egungo egunean *-a* / *-ak* eta (*-o-*) / *-ok* dira, bietarik azkenak gradu hurbilekoak, lehenengo eta bigarren hartzen dituztela, *-singularrari dagokionez urritua-*, eta kontuan hartu behar da pertsoenez ari garenean hitzuna bera ere barruan sar daitekeela, eta baita ez sartu ere.¹

Gradurik gabekoek, ordea, *-a* / *-ak*, alegia, terminologia tradiziozkoaren arauera artikulua determinatu izanez gainera, maiz besterik gabe singularitasuna edo pluralitasuna seinalatzeko balio dute, eta hizkuntzak numerorik eza erakusten duen neurrian eredu erromanikoen erara garapen paraleloak egiteko euskarri modura erabili izan dira, eta usuario hau historian zehar apurka apurka ugaltzen joan da, komunztadura berriak sortuz, eta arrazoi horregatik euskal artikulua erabiltzea ez dator bat haienarekin.

Nabarmen ageri denez artikuluoak, edo beste edozein elementu mugatzaile modura erabiltzen dena, eta ez zaigu komeni tradiziozko gramatiketako determinatu eta indeterminatekin nahastea, izen sintagma osoari ezartzen zaizkio, eta hain zuzen ere horregatik beragatik singularitasuna edo pluralitasuna, eta

¹ «Gizonok esaten dudanean ni tartean egon naiteke edo ez, *gu gizonok* izan daiteke, edo *zuek gizonok* edo *zuok gizonok*», Alfonso Irigoien, «Done Miliaga Kukullakoa eta euskara». *Euskera*, XX (1975), 170 orr.

baita beste edozein mugatzaile moetak adierazten duena ere, edo haren ez izate absolutua, multzo osoari dagokio.

Bada pluralerako *-ek* aldaera ere, batez ere izen sintagmaren zeharkako kasuetarako erabilia, baina ez horretarako bakarrik, zeren *zuek* ere, *zu* formaren plural berria, edo *batzuek* ere, jatorriz *batzu* formatik berezia artikuluduna zelako, baitaramate, eta gainera nominatiborako nahiz ergatiborako balio duela.

Euskaraz, ikusi berri dugunez, *bat* formaren plurala ere inguruko hizkuntzen eredura garatu zen, biak artikulatu indeterminatu moduan korritzen dutela, eta horretarako oraindik hizkuntzan bizirik dirauen *-zu* berrekailu kolektiboa erabili zen, eta toponimia gogoan hartzen baldin badugu bizi bizirik zegoen aintzinatean, hau da, *batzu*,² eta forma hauek, gainera, artikulua har zezaketen, modu horretara ez zeramatenekin berezirik eta eremurik zabalenean, pluralari dagokiola, ez ordea singularrari, baseari zeharo loturik gelditu zitzaion, *batzu* forma desagerturik gertatu zela, hizkera batzuetan izan ezik. Horrela *batzuek* (*batzuk*) edo *batzuok*, eta *batzuak* ere bai, artikulatu plurala itsatsirik dute, eta *batzuek* formari dagokiola halako balioz berezirik dokumentaturiko kasu batzuetan baino ez. Erronkariaraz *banak* sortu zen, ikus *berze itz banak* 'beste hitz batzu', artikulatu plurala daramala *bana* oinarriari itsatsirik, eta *banek* kasu ergatiboan, *banek erraitenzein zazpiein gizon, eta verze banek erraitenzein milla*.³

Dударик gabe menderik mende garapen hauek hizkuntza moldatzen joan dira, hari fisionomia berezia emanik, eta hala ere ez zen kondizioak sortzea

² Pluralaren erabilera ez dator bat eredu frantsesarekin, hizkuntza hartan *uns* ez baita artikulatu indeterminatu moduan erabiltzen, baina arrunta da *les uns et les autres*, alemanez bezala, *die Einen und die Anderen*, eta bigarren honek ere ez du beste funtziorako garatu. Bearnesez, hala ere, egungo egunean euskal eremutik hurbil, *ús* frantsesezko 'uns' edo 'des' berdin izan daiteke, eta gauza bera gertatzen da *ues* femeninoarekin, 'unes', 'des'.

³ Rafael Micoleta-k, *Modo breue de aprender la lengua vizcayna*, 1653-garren urtekoa, Sevilla 1897, E. S. Dodgson-ek argitara emana, *batzuk*, *batzuok* eta *batzuak* bereizten ditu, ikus: *Ecargussu pastel basuc*, 'trae vnos pasteles', 26 orr., *D.J. Angoac edo dirá pinturoc edo erretratuoc. D.P. Basuoc, seren besteoc dira Ytaliaric etorriac*, 'D.J. Tambien deuen de ser de allá los lienços o pinturas o retratos. D.P. Algunos dellos; otros son de Ytalia', 26 orr., ..., *serren dauquan-ean guisonac criadu asco, basuac beste acayti estaude gausaric eguiten artez*, '...', que quando el hombre tiene muchos criados, vnos por otros nunca hazen cosas derechas', 30 orr.

Ivan de Tartas-ek, *Onsa hilceco bidia*, Orthezen 1666, *RIEV*, I (1907), 30 orr., berezi egiten ditu, *gendé hec consideraturic batçia gora, bertçiac behera ioaiten çirela*, ..., hau da, *batziak* < **batziuak* < *batzu* + *-ak*, artikulatu plurala nominatibo kasuan duela, baina beste alde batetik, *baitçieç* [sic] *saluatu dela, bertceec ezteela*, ..., ergatibo kasuan, *RIEV*, II (1908), 574 orr., eta artikulurik gabe, *irakhuricen dira hitz eder batçu*, 573 orr., *id.*

Aita Agustin Cardaveraz-en *Christavaren bicitza*, Iruñean 1760, 15 orr., ikus *Obras completas*, Bilbao 1973, liburuan hurrengo hau irakur dezakegu: *ceren gaizqui irabacitaco ondasun batzuec beren jabeai biuriceco gogoric etceucan*, eta hor *ondasun batzuec* nominatibo kasuan dago, eta berdin balio du ergatiborako, eta, beste alde batetik, *batzuec* formaren azken posizioako artikulua ez da gehigarritzko pluralizatzailea baino.

Erronkariko formetarako ikus Alfonso Irigoyen, «Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue», *Euskera*, II (1957), 125 eta 138 orr.

posible izan oinarritik alda zedin, desberdintasun sustraizkoa numerorik ezari baitagokio. Derragun egungo eguneko gauzen egoitza neurri batean euskarazko sistema propioaren eta kanpoko eraginez numeroa garatzeko joeraren artean izan den gurutzatzetik datorrela, kanpoko eraginok oinarritz konpatibilitaterik gabekoak izanik ere.

Hizkuntzan badira zenbait elementu izen sintagma mugatzeko erabiltzen direnak eta gramatikazko numerorik ez dutenak, baina esan nahiaren aldetik ideia kolektiboari loturik daudenak. Izaera honetan dago, adibidez, *oro*, gaztelaniara 'todo, -a, -os, -as' itzultzen dela, ikus *oro docu ardura bat, ta guztia tachoentat*, 'todos tenemos vn cuydado y todo para el para', *RS 1596*, n° 533, *Heuscaldun den guiçon oroc alcha beça buruya*, «Sautrela», Dechepare,⁴ eta nola paraleloki singularraren eta pluralaren arteko oposiziodun formak garatu diren, oposizio horretarako artikulua bera oinarri harturik, Euskal Herri gehienean arkaiko ta zahar kutsuko izatera heldu da, fosil bihurturik bizi dela, ordea, *egunero* erako zenbait formatan, eta arkaiko bilakatu ez den alderdietan ere gehienetan artikulua pluralezko mugatzailea daraman izen sintagma bati lagundurik joaten da, ikus *gizonak oro*.

Ordez distribuzio konplimentarioan *dena / denak* eta *guz(t)ia / guz(t)iak*, erabiltzen dira, lehenengo multzoko *dena / denak, dana*, gaztelaniaz 'lo que es' / *diranak*, 'los que son', formak fosil bihurtzetik, gero adaptazioa jasanik, sortu zaizkigula, hain zuzen ere *diranak* delakoaren ordez, kontestu batzuetan bere zentzu jatorrizkoa galdurik eta erdarazko 'todos, -as' balioa harturik erabiltzen zenaren ordez, *denak* eta *danak* aldaerek bete baitzuten lekua, singularraren eta pluralaren arteko oposizioa kasu bietan oinarri bakarrari artikulua itsatsirik sortu zela, ikus 1823-garreneko *Iriarte, Soroa, / bijac ce mutillac!* / *Esanic dirianoc / guiñala servillac*. Izan ere *dirianoc* forma aipatu den kontestuan fosil bihurturik dago, erdarara itzulirik 'todos' litzateke, eta euskaraz, berez, horren ordez, pertsonen komuntadura eginez gero *guiñanoc guiñanla* izan beharko luke, baina jadanik beste zentzua zuen.⁵ Ifarraldeko hizkera batzuetan *oroek*, -datibo pluralean *oroer-*, eta halako formak ere badabiltza egungo egunean, artikulua plurala itsatsirik daramatela.

Pluralaren garatzea *zein* forman ere agertzen da Euskal Herriaren zati baterako, erdaraz 'cual, cuales', eta forma hori pertsoneri edo gauzei berdin dago-kie eta jatorriz ez zuen numerozko moziarik, eta, horregatik, kontestua-
 arauera, berdin balio zuen singularrari naiz pluralari begira. Derragun numerorik gabekoa zela, eta hau hala zen Euskal Herri osoan, ikus *Gamboarroc su emaytean / asi dira, ta onegaz vrten daude beralan / oñeztar barruangoac. /*

⁴ *Refranes y Sentencias comunes en Bascuence*, Pamplona 1596, W. J. van Eys-ek argitara emana *Proverbes basques espagnols* titulua daramala, Genève et Bale, 1896.

Dechepare, *Lingvæ vasconvm primitiæ*, Bordelen 1545, erretratuzko edizioa, *RIEV*, 24 (1933), 523-578 orr.

⁵ Alfonso Irigoien, «Konstituzioko dama eta beltzak 1823-garren urteko Markina, Xemein eta Etxebarrin», *Zehatz*, II, 3-4, 1978-ko Uztaila-Abendua, 58 orr.

çein erre ez citeçan.⁶ Ikus daitekeenez *çein erre ez citeçan* aurrekoari loturiko azken frasean *çein* bat baino gehiagori dagokio, eta zeharo argi jartzen du hori *erre ez citeçan* berboak.

Nabarmen denez, mendebal aldean pluralerako *zeintzuk* esaten da, *batzuk* formaren analogiaz sortua, eta arrazoi horrexegatik automatikoki *zein* singularizat hartzen da, baina historikoki, ordea, plurala sortu ondoan, pluralaren eta singularrik ezaren edo numerorik ezaren arteko oposizioa litzateke. Beste alderdi batetik *edozein* forma deribatuan, hau ere izen sintagmari itsasten baitzaio mugatzaile modura, ez da pluralik batere garatu.

Kasu berean dugu *nor*, erdaraz 'quién, quien, quienes', termino markatua izanik pertsoneri dagokiela baino erabiltzen ez dena, eta izen sintagmaren mugatzaile modura korritzen ez duena, eta baita ere *zer*, eta pluralak *nortzuk* eta *zertzuk* dituzte, eta Bizkaian badira baita *bitzuk* eta *irutzuk* ere, *bi* eta *iru* oinarritzat dutela. Hemen, beste alderdi batetik, adierazi behar da gaztelaniaz ere *quien* formak ez zuela pluralik eta XVI-garren mendean agertu zela *quienes*, ikus M. Pidal, *Gram. hist.*, § 101.1, 263 orr.⁷

Artikulua, gainera, euskaraz apurka apurka posizio predikatiboan agertzen zen adjetibora iragan zen, hark jatorriz ez baitzuen hartzen, nabari daitekeenez, eta horrela haren bidez numerozko komunztadura egin ahal izan zen, inguruko hizkuntzetan gertatzen den bezala, baina haiek ez dute artikularen beharrik, korretarako numeroaren mozioarekin aski baitute, -euskaraz generoarena egitea ez zen posible inondik ere-.⁸ Euskal artikulua ez da kontestu honetan, historikoki ari garela, numero *gramatikazkoaren* ordezkoa baino, hizkuntzak ez baitu besterik. Artikulu gabeko predikatu nominalarentzat ikus Axular, «Gomendiozco carta», *RIEV*, IV (1910), 424 orr.: *Çu içan çara Echaus, mendi Pyrinioetan, Alduideco hegaletan, bethiere centinela, eta beguiraille beçala, iraiçarriric dagoen iauregui eta gaztelu handi, eder, noble hartaco seme*. Egungo egunean joera handiagoa nabari da *semea* artikulua eta guzti erabiltzeko. Axularren baitan artikulurekin ikus, *id.*, 423 eta 424 orr.: *Çu içan çara, eta içanen çara, euscaldunen ohorea, habea, iabea, sostengua eta cantabres fina, naturala eta eguiazcoa*, predikatu nominalak artikuludun direla, *çu* bigarren pertsonarekin, jadanik singularraren balioz, numerozko komunztadura egiten dutela.

Beste horrenbeste gertatzen da partizipioak funtzio predikatiboa duenean, eta, horrela, alderdi batzuetan hurrengo erakoak garatu dira: (*mutikoa*) *et(h)orria da* edo (*mutikoak*) *et(h)orriak dira*, alboan *et(h)orri da* eta *et(h)orri dira* dituztela, eta azken hauetan *et(h)orri*, artikulua gabe, berdin joan daiteke singularrekin naiz pluralarekin. Zuberoan bada azkenengoaren era bereko den

⁶ Luis Michelena, *Textos arcaicos vascos*, Madrid 1964, 83 orr. Lab.: *TAV*.

⁷ R. Menéndez Pidal, *Manual de gramática histórica española*, decimotercera edición, Madrid 1968.

⁸ Luis Michelena, «Miscelánea filológica vasca», *FLV*, n.º 29 (1978), 208 orr. eta hurrengoak.

*joánik da ere, eta ethorri erabil baledi ethorririk da.*⁹ Gaztelaniaz *venido*-ren kasuan, *he venido, hemos venido*, eta abar, esaterako, (Frantsesez *il est venu, elle est venue, nous sommes venus*, eta abar), fosil bihurtzearekin bakarrik gertatzen da, perifrasi bere autonomia indartzera iritsi zenean. Edozein modutan ere gaztelaniaz *venido* berez neutro edo maskulino singularra besterik ez da. Komuntadurazko artikulua duen partizipioarentzat ikus Axular: *Hango Bizcondeac eta seme guztiac içatu dira bethi ere, egundaiñoz guero, erreguez emplegatuac, estimatuac, fin eta leyal frogatuac*, «Gomendiozco carta», *id.*, 424 orr., erdarazko boz pasiboaren eradura moldaturik.

Batzuetan forma bikoitzak gelditu dira eta ñabardura bereziak hartzera etorri dira, hala nola *hobe da ez egitea / (hori) hobea da bestea baino, (horiek) hobek dira*, lehenengoa egungo eguneko hizkuntzaren egoitzan *hobe izan* berbo multzotzat nolabaiteko autonomiaz har dezakegula, iragankor erara ere erabilirik, futuroa *hobeko dugu* laburturik, *hobe izango dugu* osorik, ikus *RS 1596 n° 322: Obe da aurpegui gorri ze ez bioza balzqui*, 'mejor es cara colorada que no coraçon denegrado', baina n.° 542, *TAV*, 174 orr.: *Vrrineric ospea, erricoa obea*, 'la fama del País es mejor que la que viene de lejos', eta *on* artikulua gabekoa duela, *hauda, on izan* multzoa eginik, Axular, *id.*, 450 orr.: *eta on liçate orai ere, halacoequin, hala eguin baledi*.

Artikuluaz esan behar da, gainera, badela joera bat baiezko kontestuetan orokorki erabiltzeko, eta horrela, XVI-garren mendean bertan, euskal hitz guztiak *-a-z* amaitzen zirela esatera iritsi ziren,¹⁰ hain zuzen ere erdara ere bada-kien euskaldun bati galdetzen baldin bazaio nola esaten den *pan* bere hizkuntzan inolako dudarik gabe *ogia* erantzungo baitu, artikulua ondorik duela, eta, horrela, alderantziz, kasu honetan behintzat, *ogia* 'pan' modura itzul daiteke, *ogia jan du* 'ha comido pan', baina baita ere 'ha comido el pan', eta arrazoi horrexegatik ez da beti eta halabeharrez artikulua determinatua, terminologia tradiziozkoan erdaretarako korritzen duen zentzuan, gauza determinatu batez ari izanik (*el libro*) edo indeterminatu batez (*un libro*), alegia, eta hau frasea baiezkoa denean normalki gertatzen bada ere, ez da hala, ordea, jokabide nagusi modura, hurrengo kasuetan: frasea ezezkoa denean, baiezko edo ezezko galdera adierazten duenean, baiezko edo ezezko duda erantzunik espero ez dela agertzen duenean, baiezko edo ezezko baldintza adierazten duenean, eta abar, *ogia ez du jan*, eta berezirik, *ogirik ez du jan*, galdera baiezkoak: *jan du ogia?*, eta berezirik, *jan du ogirik?*, ezezkoak: *ez du jan ogia?*, eta berezirik, *ez du jan ogirik?*, duda agertzen duten baiezkoak: *jan ote du ogia?*, eta berezi-

⁹ L'abbé Inchauspe, *Le verbe basque*, Paris 1858, 13 orr. Bada erretratatzko edizioa ere Hordago-k egina, Donostia 1979. Honelako ñabarduraz bereizten ditu: «Parfait: *joánik da* 'il est allé', alde bate-tik, eta «Parfait absolu: *joánik da* 'il est (tout à fait) parti'», bestetik.

¹⁰ Garibay, Zaldibia, Echave eta Lucio Maríneo Siculo, ikus R. M^a Azkue-ren *Morfología vasca*. Bilbao 1925, § 428, eta ⁸ notako lana. Hau Rafael Micoleta-ganaino heltzen da, eta honek 1653-garren urtean, ikus ³ nota, honela hasten du bere *Modo breue de aprender la lengua vizcayna*: «Aduierte-se que todos los nombres substantivos y adjectivos de la lengua Vizcayna se acaban en A. y sus plurales en AC, ...».

rik, *jan ote du ogirik?*, ezezkoak: *ez ote du jan ogia?*, eta berezirik, *ez ote du jan ogirik?*, baldintzazko baiezkoak: *ogia jan baldin badu ez da gose izango*, eta berezirik, *ogirik jan baldin badu ez da gose izango*, ezezkoak: *ogia jan ez baldin badu gose izango da*, eta berezirik, *ogirik jan ez baldin badu gose izango da*, ikus Leič., «S.Lvc.», III, 11: *eta iatecoric duenac halaber eguin beça* 'Vulg.: et qui habet escas, similiter faciat', baiezko frase nominalizatua bere balioz baldintzazkoari hurreratzen zaiola, eta abar, eta horrela, baiezko frasean alderantzizko beste joera bat sortzen da gramatikazko kasuei dagokiena, izen sintagma mugatzailerik gabekorik ez erabiltzearena, eta, adibidez, partitibo kasuan daudenekin hala gertatzen da, beste erako fraseetan bete bete erabiltzen badira ere. Salbuespen modura, alabaina, azkenengo aipatu diren partitibo kasukook baiezkoan urriturik ager daitezke zenbait kontestu adierazkorretan, eta baita ondar gisako direnetan ere, azkenengo hauetan partitibozko ez direla ere bai.

Izen sintagma batere mugatzailerik gabekoez ohar bat argitara nuen *Anaitasuna*-n, 365 zenbakia, 1978, ekainaren 15-30, eta ¹¹ notan aldatzen dut.

Zenbait gehiago erants genitzake, Axular, *id.*, 441 orr.: *Contatcen du Casianoc, Paulo abade çahar hura, Palma adar baiçuc harturic, heçaz, çare, sasqui eta otharre eguiten haritcen cela*, osagarri zuzen modura *çare, sasqui eta*

¹¹ «IZEN SINTAGMA MUGATZAILERIK GABEAK.

«1. *Guero Davitec eman cion bere semeari urhe eta cilhar Jaunaren temploan beharco ciren baso sacratuentzat*. Etcheberry (1), 117 orr.

«2. *Yrezat naztoana besteri ez opaesi* 'lo que para ti no quieres no ofrezcas a otro', *RS 1596*, n° 470.

«3. *Cerbitzaric batec-ere ecin bi nabusi cerbitza ditzaque*, Leizarraga, S. Luc. XVI, 13.

«4. *Azaga onic estau mandazaic* 'postrimeria buena no la tiene mulatero', *RS 1596*, n° 302.

«5. *Esacussan beguic nigar esteguic* 'l'oeil qui ne te void pas, ne te pleurera pas', Oihenart, 153.

«6. *Harri erabilic estu bilzen oroldiric* 'vne pierre souuent remuée n'engendre point de mousse', Oihenart, 211.

«7. *Herric bere legue, exec bere astura* 'chaque país a sa loy, et chaque maison a sa coustume', Oihenart, 229.

«8. *Mendiz joan da diogunean ez da adierazten mendi bat den ala gehiago iragan beharrekoa*, gramatikaren aldetik *mendi* ez baita ez singularra, ez plurala, ez kolektiboa, izen sintagma mugatzailerik gabea baino.

«9. *Ez dut etxerik erosi diogunean ere berdin gertatzen da eta etxerik izen sintagma ez da ez singularra, ez plurala eta ezta kolektiboa ere*, mugatzailerik gabea baino. Izan ere erdarara modu bitara gutxienez itzul daiteke: a) 'no he comprado casa', b) 'no he comprado casas'. Batean *casa* mozio singularrez agertzen da eta bestean *casas* pluralez, baina euskarazkoak ez du horretaz informaziorik ematen, euskaraz ez baitugu oinharritzko numerozko moziarik sustantiboetan, adjetiboetan eta abar, generozkorik eta kasuzkorik ez dugun bezala.

«10. Mugatzailerik gabeak ezin egin dezake sekula pluralezko konkordantziarik. Irakurlea goian datozen fraseetako berboetan kondordantziarako pluralak ipintzen saia daiteke, mugatzailerik gabekoei begira daudenetan alegia, eta hasi orduko konturatuko da gramatikalitarea galtzen dutela. Hori ez da gertatzen, ordea, mugatzaile kolektiboekin, konkordantzia *ad sensum* eginik plurala ere har baitzakete: *gizon asko etorri da* edo *gizon asko etorri dira* edo *gara* edo *zarete*, baina ez **ez ditut sagarrrik jan* eta ezta ere **harri erabilic ez dute hiltzen oroldiric* edo *ez dituzte*.

«Bergararako, 1978-IV-22

«(1) Etcheberry, *Testament zaharreco eta herrico istorioa*, Bayonan 1874».

otharre duela, eta hiru moietako izanik, eta gainera ohituraz, ez zen bakarra egiten zuena, baina gramatikaren aldetik ez du formalki mugatzaierik; *Pero Periz Garidario* (1366, *PN-XIV, F.Est.*, 590 orr.), *Echarren-en, Val de Mayneru*,¹² *gari + dario*, erdaraz 'le mana trigo', osagarri zuzena inolako mugatzaierik gabe duela. Beraz, singularrik eta pluralik adierazten ez duela, eta kasu honetan, zentzuagatik, gariak korritzen ez badu ez dario. Egungo egunean *garia dariola doa* esango genduke, artikulua singularra duela, eta *garia* ale multzoari dagokio, eta badira, Bizkaian bederen, baita ere *garijotea*, alderdi batetik, baina *garia jo*, bestetik, lehenengoa lexikalizaturik.

Hau honela da *-dun* berrekailua daramaten formazioetan ere, normalki elementu hori izen sintagmei eransten zaiela, eta azkenengo hauek adjetiborik ez dutenean sustantiboari. Honen jatorria *duen* flexio nominalizatuaren fosil bihurtzean bilatu behar da, horrela posizio enklitikoan kokatzen dela, eta beste alde batetik esan behar da hastapeneko erabiltzearen berezitasunak gorde dituela orainarte. Horrela, *ate gorridun etxea* esan dezakegu, eta ez da argi gelditzen zenbat *ate gorri* dituen *etxeak*, baina edozein modutan ere bat gutxienez badu, baiezkoa baita, eta arrazoi horrexegatik egungo eguneko hizkuntzaren egoitzan egitura sakonean *ate gorridun etxea* delakoan *etxeak ate gorria du* frasea dago, alderdi batetik, eta *etxeak ate gorriak ditu*, bestetik. Izan ere, *ate gorri* ez da ez singularra eta ez plurala, numerorik adierazten ez baitu, eta arrazoi horrexegatik beragatik bietarik edozein kasutan erabil daiteke.¹³ *Aipatu dugun eredu*an *ate gorri* izen sintagmari, gainera, mugatzaile numeralak gehi dakizkioke, *bat* izan ezik, baina *bakar* erabil liteke, ordea, edo singularraren eta pluralaren arteko oposizioerik ez duten kolektiboak. Eta horrela, esan dezakegu: *hiru ate gorridun etxea / ate gorri askodun etxea / zenbat ate gorridun etxea?* galdera egiten baldin bada ondo ulertu ez delako zenbat diren, eta abar. Gramatikaltate osoa du *hiru etxe ate gorridun* formazioak ere, hor *ate gorridun* adjetibo modura erabiltzen dela, hain zuzen ere sustantiboarekiko posizioagatik horietarikitzat markaturik gelditzen baita, eta abar.

Singularraren eta pluralaren arteko oposizioa duen mugatzailea baldin bada *ate gorri*-ri ezin erants dakioke berboaren flexioa aldatu gabe, eta horrela *ate gorria duen etxea* esan beharko litzateke, eta *ate gorriak dituen etxea / Gernikan eginiko hiru ate gorriak dituen etxea*, eta abar, komunztadura beharrezkoa dela, eta ikusten denez oposizio plurala / plurala ez dena duela, hau da, plurala da osagarri zuzenarekin numeroaren komunztadura sortzen duena, osagarri zeharkakoarekin ere gertatzen den bezala.

Ate gorridun etxea-ren ezezko forma *ate gorri gabeko etxea* da, eta *gorri* adjetibo daramanez gero *ate gorria* edo *gorriak* dituela zeharo ezeztatzen du, baina ez da ukatzen ezin izan ditzakeela bat edo bat baino gehiago beste kolo-

¹² Juan Carrasco Pérez, *La población de Navarra en el siglo XIV*. Pamplona 1973. Lab.: *PN-XIV*.

¹³ Alfonso Irigoien, «Crítica sobre prefijación y sufijación en lengua vasca». *FLV*, n° 32 (1979), 255 orr. eta hurrengoak.

re batekoak. Baina ezetza adjetibo gabeko izen sintagma bati eransten baldin bazaio ezezko absolutua sortzen da, *ate gabeko etxea*, ate bat bakarra bera ere ez duena, den kolorekoa edo den kalitatezkoa dela. Hau honela formula daiteke: Izen sintagma mugatzailerik gabekoa eta adjetiborik ere ez duena ezezko frase baten barruan agertzen baldin bada, delako izen sintagmak duen sustantiboaren edukia zeharo ezeztaturik gelditzen da. *Ez dut etxerik*, ez dut bat bakarra bera ere, baina *ez dut etxe egokirik*, egokia edo egokiak ditudala ukatzen da, bat edo bat baino gehiago badut edo ez badut ere egoki ez denik.

Izen sintagmak mugatzaileraren bat duenean, ordea, ezin sor daiteke inoiz ezezko absolutua. Hau gerta dadin beharrezkoa da mugatzailerik batere ez izatea, ikusi dugunez. Izan ere, ezezkoan ipintzen baldin badugu *haur asko solfeo ikasten ari da* frasa, honela, *ez da haur asko solfeo ikasten ari*, honek ez du esan nahi haurrik solfeo ikasten ari ez denik, gertatzen dena da hiztunaren eritzirako gutxi direla. Eta galdetzen baldin bada *atzo zein ikasle ez zen etorri?*, beste guztiak etorri zirela adierazi nahi da, eta *atzo hiru ikasle ez ziren etorri*, hiru horiek izan ezik beste guztiak etorri zirela, hiztuna erratzen ez baldin bada, baina mugatzailerik batere gabe *atzo ikaslerik ez zen etorri*, bat bakarra bera ere ez zela etorri.

Konposatuen lehenengo atala ere iker liteke. Hauetan erregela orokorrena da delako lehenengo elementu horrek bigarrenari zerbait eransten diola. Lehenengo hori beti inolako mugatzailerik gabeko elementua izaten denez gero, ez da, berez, ez singularra eta ez plurala, eta batzuetan zenbatzea logikaren aldeetik garbi agertzen denean gaztelaniara edo frantsesera singularrez naiz pluralaz itzul daiteke. Ikus dezagun: *aberri eguna*, mundu guztiak aho batez 'día de la patria' modura itzultzen du, eta *aberri* hitza denez gero, dituen konnotazioakatik Euskadiri edo Euskal Herriari dagokiona da, Sabino Arana-k hitza, mogimendu abertzaleaz batera, sortu zuenetik hona. Baina konnotazio moeta guztiak kendurik huts hutsik ikertzen baldin badugu, eta gainera suposatuturik mundu guztikoak ere *aberri* direla eta jai bat aberri guztientzat batera egiten dela, erraza ez bada ere gizonaren izate moduagatik, ez litzateke inolako eragozpen hizkuntzazkorik izango 'día de las patrias' gaztelaniara itzultzeko, *txarritoki* 'lugar de cerdos' literalki itzuliko bagendu bezala, eta bat bakarra balitz ere ez litzateke eragozpenik izango 'del cerdo' egiteko, *txarrikorta* hitzean legez. Numerorik ezaren arazoa zeharo desagertzen da, ordea, lehenengo elementua genitibo edutezkoaren bidez artikulua singularra edo plurala duela nominalizatzen baldin badugu: *aberriaren eguna* / *aberrien eguna*, eta mugatzailerik batere gabe nominalizatzen baldin bada hurrengo sintagma moeta sortzen da: *aberriren baten eguna*, singularitasuna *bat* formak ornitzen duela eta aurrean daramana mugatzailerik gabekotasunez markatua dagoela. Berdin esan genezake *txarriaren tokia*, *txarrien tokia*, *txarriren baten tokia*, eta abar.

Beste alde batetik aipatzea merezi du izen sintagmen deklinabideko paradigmatan artikulua mugatzaile direnean gertatzen dena. Singularrari dagokion lerroan leku denborazko kasuetan ez da artikulurik agertzen, inesibo kasuan izan ezik, eta honek biak eramaten ditu, edo *-a-* edo *-o-*, lehenengoan fosil bi-

hurtzearen sintomak nabari badira ere, hain zuzen ere hiztunek multzo hone-tako kasuak berdintzeko joera baitute. Pluralean, ordea, normalki erabiltzen dira, bai *-e-* (eta *-ta-n* desinentzia), eta bai *-o-* (eta beste horrenbeste). Arazo honek beste hurrengo hau sortzen du, singularrean erabiltzen diren desinentziak eta zenbait kasu mugatzaile gabekotan korritzen dutenak berdinak izatea, —*Durango-ko-a, atzo-ko-a, bizitza gaizto-ko-a*, eta berbo flexioa bera nominalizaturik *balizco oleac burdiaric ez*, 'la erreria de si fuesse no aze fierro', *RS 1596*, n°15, hau da, *baliz-ko-a*, eta Arratian gure denboretaraino honela irau duen errefaua: *balizko erroteak urunik ez*, eta euskaraz bi geniti-boek berezko duten berriz errepikatzea garaturik *nire ama, [goian bego], Upa-nerdikokoa zan*, hau da *Upa(ra)n erdi-ko-ko-a*, historiaren aldetik hala dela izan ere—, azkenengo kasu hauek distribuzio konplementarioz, eremu geografikoaren arauera, desinentzia berberak *-ta-* berrekailua aurretik daramatela badituzte ere, *-ecen vicitze gaichtotacoec-ere bere onhesleac onhesten dituzté*, Leiz., «S.Lvc.», VI, 33,¹⁴ hau da, *bizitze gaixto-ta-ko-ak-*. Forma bikoitz horiek mugatzailea *-a* artikulua ez denean ere agertzen dira, —*sei etxetako garia*, hau da, *sei etxe-ta-ko-a*, baina hala ere *sei urtekoa da*, hau da, *sei urte-ko-a*, eta *bost ogerlekokoa*, hau da *bost ogei erle-ko-ko-a*—, eta *-ta-*, ikusi dugunez, artikulua pluralarekin ere joaten da. Leku denborazko kasu hauei dagokiela esan dezakegu artikulua numerozko oposizioa plurala / plurala ez dena dela.¹⁵

Eta azkenik hizkuntzaren oraingo egoitzan izen sintagmen klasifikazio bat egin dezakegu mugatzaile moeten edo batere ez izatearen arauera:

a) Izen sintagma batere mugatzaile ez dutenak.

b) Mugatzaile zentzu kolektibokoa eta singularraren eta pluralaren arteko oposiziorik gabekoa daramaten izen sintagmak. Kontestuaren arauera ez da ezinezkoa inoiz kasuren batzuetan joera orokorretik aldendurik batekin identifikatzeraino heltzea.

c) Numerozko edo distribuziozko mugatzailea daramaten izen sintagmak.

d) Singularraren eta pluralaren arteko oposiziorik gabeko mugatzailea daramaten izen sintagmak.

e) Singularraren eta pluralaren arteko oposiziodun mugatzailea daramaten izen sintagmak.

Guzti honek ez du esan nahi gero ezin egin daitezkeenik aipatu diren

¹⁴ I. Leizarragas *baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc)*, Estrasburgo 1900. Th. Linschmann eta H. Schuchardt-en edizioa, azkenengo honen sarrera batekin. Bada erretratuzko edizioa ere, Hordago-k egina, Donostia 1979, baina sarrerarik gabe.

¹⁵ Ikus «Deklinabideaz» nire lana, *Euskera* XXIII (1978), 737-759 orr., eta baita ere «Deklinabide. Euskaltzaindiak deklinabideaz eskaintzen duen erabakia», *Euskera* XXIV (1979), 633-657 orr., Euskaltzainburuaren eskabidez prestatu nuena eta gero oso osoan aho batez, boto bat zuri izanik, ontzat hartu zena.

multzo desberdinetako mugatzaileen artean beste klasifikazioren batzu ba-koitzaren berezitasunak, zentzuari eta usuarioari dagozkiola, gogoan harturik.

Goiko *b)* multzoari dagokiola on litzateke adieraztea berboarekin komunztadura pluralean ere egin dezaketela, *ad sensum*, eta batzuetan, hala eskatzen duten inguruko beste elementu batzuen eraginez, hau ezinbestekoa gerta daiteke, ikus *liburu horiek dolar asko kostatu zaizkit*, eta lehenengo pertsona, *gu*, denean, edo bigarrena, *zuek*, kasu bakoitzean dagokion berbo flexioarekin. Numerozko eta distribuziozkoetan, *c)* multzoan, berboarekiko komunztadura orokorki pluralean finkaturik dago, bai tradiziozko literaturan eta bai usuarioan, *bat* forman izan ezik, berezkoa denez. Gainera numerozkoak suplementu modura artikulua plurala har dezakete.¹⁶ Bakarka, mugatzaile zeregina utzirik, singularra ere bai, baina orduan sustantiboaren balioz betetzen dira, *hirua*, erdaraz 'el tres'. *Bat* eransten baldin bazaie, ordea, mugatzaile moduan gutxi gora beherako zifra adierazten dute, *bost bat liburuskak berri*, erdaraz 'unos tres folletos nuevos'. Toki bi hartzen dituzten *b)* eta *d)* multzoak bat egini ere ipin daitezke, dituzten desberdintasunak, zentzuari dagozkiola berezi direnez gero, nabarmenegiak ez baitira. Izan ere *d)* horretan *zein* eta bere deribatua den *edozein* sartuko lirateke. Numerorik gabeko *zein* mugatzailea singularraren eta pluralaren suposatze bietan erabil daiteke, berboarekin komunztadura singularrean edo pluralean, bat edo bat baino gehiago izatearen arauera, eginik. Baina mugatzaile kolektiboek pluralik eza ere har dezakete komunztaduratzat bat baino gehiagori begira gertatuarren. Jakina, *zeintzuk* plural bihurtua erabiltzen den alderdietan jatorrizko den *zein* forma singularizat hartzen da.

Ezin utzi daiteke, beste alde batetik, aipatu gabe zenbait kontestutan mu-

¹⁶ Larresoro-k, *Sustrai bila*, Donostia 1970, eta geroago *Oinarri bila*, Donostia 1977, bigarrenean Txillardegiri erabilirik izenez, honezaz eritzi bat zabaldu zuen nahikoa hedatu zena eta ene ustez ez aski landua. *Mugagabe* edo *indeterminatu* hitza erabiltzen du honela definiturik: *hiztunekiko ez ezagun edo mugagabea*, 40 orr., eta tradiziozko gramatikaren terminologia da, hark artikulua determinatua eta indeterminatua bereizten baititu, eta oinarri honetarik abiatzen dela, *indeterminatu* guztietan berboarekiko komunztadura, numerozkoak ere tartean sartzen dituela, singularrean proposatzen du, «mugagabeak *singularra* behar du aditzean beti» dioela, baina bereziki numerozkoetan euskaldun gehienen arteko ohituraren kontra doa eta baita tradiziozko literaturaren kontra ere, alderdi batera utzirik leku bateko edo besteko erabiltzeak edo ardurua asko hartu gabekoak, batez ere berboaren ondorik doazenean, eta hizkuntzaren antzinatoko garaietan gertatu ahal izan dena, horrezako literaturarik ez baitugu, ikus *op. cit.*, «2.2.—Muga-gabea eta aditza», 58 orr. Uste dut ohitura berri hori, batzuen artean artez eta jator balitz legez hedatu zena, zuzendu egin behar dela, sekula lokatu behar ez zen pundura itzulirik. Txillardegiri bera bere *Euskal gramatika*-n, Bilbao 1978, «4. Mugagabearen komunztadura», 35 orr. eta hurrengoak, geroago honela mintzatzen da, ordea: «Nahiz erdalkeria hau ez oso zaharra izan (ikus «Sustrai Bila» 62/69), badirudi bi komunztadurak eman beharko direla ontzat: *bi liburu erosi dut / bi liburu erosi ditut*». Baina ez dut uste norma nagusitzat hori horrela formulatzea zuzena denik, zeren euskaldunik gehienek berez bigarren arauera jokatzeko eta jokatu izan baitute, eta ohitura hori baita oinarritzat hartu behar dena, salbuespenak, bai eremu geografikoaren arauera eta bai kontestuen arauera, salbu.

Txillardegiri-k badu beste lan bat ere: José Luis Alvarez Enparantza, «L'emploi de l'indéfini en souletin (à travers l'oeuvre du poète Etxahun)», *FLV*, n° 25 (1977), 29-55 orr.

gatzaillearen funtzioa beste izen sintagma batek bete dezakeela. Halako kontes-
tuak normalki kantitatearekin eta neurriarekin zer ikusia dutenak izaten dira.
Horrela, gramatikaltate osoa dute hurrengo hauek: *hiru kilo mahats zuri, lau
litro ardo beltz, bost botila txakolin zuri, sei zaragi txiki ardo zuri, burdi bete
sagar gorri, burdikada bat oilasko lumatu*, eta adjetiboa duela, *burdikada
handi bat meloi ustel*, ergatibo kasuan honela egingo lukeela, *burdikada handi
bat meloi ustelek hatsa zabaltzen zuen*, eta datiboan, *burdikada handi bat
meloi ederri eskolako haurrek ez diote aurpegi txarrik jarriko*. Bide honetarik
agertu dira, noski, hurrengo hau bezalako esaldiak, *makina bat gizonek egin
du bide hori orainarte!*, askok egin duela adierazi nahirik, eta Bizkaian sarri
karro bete ere entzuten da zentzu berdintsua duela, *karro bete ume dago han*.
Multzoz berean sartzen dira *jan ahala okaran eman dio, nahi den beste esne
edan du, nahi a(d)ina boligrafo beltz eros daitezke dendan, ez da nahikoa
entzule gazte etorri / ez da entzule gazte nahikoa etorri*, azkenengo honetan
agertzen den *nahikoa* delakoa adjetiboei edo adberbioei ere eransten zaiela,
oso elementua bezalatsu, *nahikoa ona da, oso ona da, oso entzule ona da*, eta
hau honela da erabiltzen den Bizkai-Gipuzkoetako eremuan, gutxienez egungo
eguneko hizkuntzaren egoeran, zeren Azkue-k bere Hiztegi nagusian esaten
baitu: «exige que la palabra á que se agrega lleve también su artículo, y se po-
pone siempre,... *mutilla naikoa* 'bastantes muchachos'», eta hainbat urte ge-
roago bere *Morfologia*-n, 463 orr., izkribatzen baitu: «*naikoa* (B, G) como
aski; *gizona naikoa* (mejor que *gizon naikoa*) como *gizonik aski* 'bastantes
hombres'; también se oye *gizonik naikoa*», baina gauza argia da, orain entzu-
ten denez, ez dela erabiltzeko modu bakarra, eta, beste alde batetik, ez da
ikusten zergatik *gizon naikoa*, korritzen duenetarikoa izanik, nolabait bazter-
garri bihurtu behar dugun, jatorriz posizio predikatibokoa izatetik *nahikoa*
erari artikulua itsatsirik gelditu bazaio ere, eta abar.

Bilbon 1984-garreneko iraila.